

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)



EHUREKA AHOLKUAK

23

DATAK





ZENBAKIZ

Modu bat baino gehiago ditugu erabilgarri eta guztietan ere hurrenkera honetan idatziko ditugu: **urtea-hilabetea-eguna**.

Testuan txertatuta	Testuan txertatu gabe
2012-05-29ko azterketarako deialdian...	2008-05-29
2012/5/29ko azterketarako deialdian...	2008/5/29
2012/V/29ko azterketarako deialdian...	2008/V/29
2012-V-29ko azterketarako deialdian...	





LETRAZ

Hainbat kasutan data idatziz eman behar izaten dugu; horietan, bi modu hauetan idatzi dezakegu:

1. Bilbo, 2012ko maiatzaren 29a
2. Bilbon, 2012ko maiatzaren 29an

Badago beste modu bat. Baina testu batean txertatu behar da aposizio moduan, emandako informazioa zehazten laguntzen digunean, alegia. Koma artean idatzi beharko dugu.

Datorren larunbatean, ekainak 1, Leioako campusean ikaslearen eguna dela-eta hainbat ekitaldi izango dira





ZENBAIT ZALANTZA

Batzuetan, urtea eta -ko atzizkiaren artean -garren adierazten duen puntua (2012.ko...) erabiltzen da. Horri dagokionez, Euskaltzaindiaren gomendioa hau da: datari dagokion urtea adieraztean ez erabiltzea -garren atzizkia (ez letraz eta ez puntuz). Salbuespena: urte-kopuruaren ondoren urte hitza idazten denean (eta orduan, nahitaez erabili -garren atzizkia).

2011. urteko memoria
eta ez *2011.ko memoria

Hilaren izena hizki xehez idatzi behar dugu:

2012ko maiatzaren 29an
eta ez *2012ko Maiatzaren 29an

Urtea idaztean, zenbakien artean ez da punturik jarri behar:

2012
eta ez *2.012





HILABETEAk ETA EGUNAK

Urtarrila	Uztaila
Otsaila	Abuztua
Martxoa	Iraila
Apirila	Urria
Maiatza	Azaroa
Ekaina	Abendua

Batuaz	Mendebaldeko euskalkian
Astelehena	Astelehena
Asteartea	Martitzena
Asteazkena	Eguaztena
Osteguna	Eguena
Ostirala	Barikua
Larunbata	Zapatua
Igandea	Domeka

Bai hilabeteak, bai egunak, mugatuta jarri ditugu zerrendan, baina berez amaierako “-a”-rik gabe dira, eta horrek eragina dauka hitzak deklinatzen direnean:

*Matrikulazioa irailan izango da
Matrikulazioa irailean izango da
*Martxoatik badakigu hori
Martxotik badakigu hori